

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektuaren izena: Oasis Paradisua

Oasis paradisua hirugarren adineko pertsonentzako etxe aurrefabrikatuaz osatutako gunea da, hau da, egoitz baten modukoa. Beste egoitzekin konparatuz berezitasun batzuk eskaintzen ditugu, izan ere, bakoitzak bere etxe pribatua izango du.

Egoitza esparru pribatu batean egongo da, barruan biziko dira eta bakoitza bere etxe pribatua izango du bere kabuz bizitzeko. Egunean zehar ekintza ezberdinak egongo dira, izan ere, gure helburua, hirugarren adineko pertsonak bakarrik ez egotea da baina haien etxean bezala sentitzea eta ez egoitz normal batean bezala. Horrez gain, familiaren bisitak onartuko dira eta haiekin lo egin ahalko dute baina aurretik abisua eman behar da.

Lehen esan dugun bezala, ekintza desberdinak egongo dira, hala nola, Aqua gim, mahai jokoak, lorezaintza, sukaldaritza tailerrak, bingoa, eskulaneko tailerrak, teknologia erabiltzeko tailerrak, yoga, pilates...

Horrez gain, beste zerbitzu batzuk egongo dira, hala nola, igerilekua, ileapaindegia, mesa, supermerkatua, garbiketa zerbitzua, masajista, osasun zentro txiki bat...; laburbilduz, behar dutena eskuragarri izango dute.

Esparrua guztiz itxita egongo da, izan ere, hirugarren adineko pertsonak erasotutako izateko beldurra dute. Horretarako, segurtasun-sistemak egongo dira, adibidez, atezainak edo segurtasun kamerak. Bisitak egotekotan, bi egun lehenago abisua eman behar da eta esparrura sartzeko timbre bat jo behar da.

Amaitzeko, etxeko animaliak onartuta daude, gure ustez animalien presentzia oso lagungarria da pertsona hauentzako osasuna zaintzeko.